



Newsletter N. 3

Martxo 2019

Laburpena

1. Euskadiko Sarastarri (Aralarreko Parke Naturala) eta Zezen Erreka (Pagoetako Parke Naturala) gunetako hagin-multzoen prezio altuko 3Dren altxamenduak argitaratuta

2

2. 9580* lehentasunezko habitataren hobetze lanak Pagoetako Parke Naturalean (Gipuzkoa) erritmo onean aurrera egiten ari dira

4

3. Gaztela eta Leongo LIFE BACCATA proiektuaren jarduerak koordinatzeko bilera

5

4. Kantauriar Mendilerroko "Taxus baccata-ren mediterranear basoen" karakterizazioaren emaitzak Gaztela eta Leonen

7

5. LIFE BACCATA Mintegi Teknikoa

9



www.life-baccata.eu

SOCIOS



LIFE15 NAT/ES/000790



ADMINISTRACIONES COLABORADORAS



1. Euskadiko Sarastarri (Aralarreko Parke Naturala) eta Zezen Erreka (Pagoetako Parke Naturala) guneetako hagin-multzoen prezisio altuko 3Dren altxamenduak argitaratuta

Urtarrila 22, 2019

LIFE BACCATA proiektuak haginak dituzten basoen ezaugarritzea egin du Aralar eta Pagoetan, Gipuzkoan. Ikerketa honen barruan 3Dko prezisio altuko lurreko altxamendu fotogrametrikoa egin da, espazio hauen partzela berezienetan. Horren bitartez, kalkulatu dira honako parametro hauek: dimentsioak, egitura, espezieen banaketa eta aztertutako eremuaren babes egoera.

Egindako altxamenduek hainbat teknika erabiltzen dituzte: Fotogrametria Digital Automatizatua, Teledetekzioa eta Informazio Geografikoko Sistemak (IGS). Basoen partzeletako argazkiak 3 ardatz dituen egonkorgailua duen kamera batekin egin dira (marka komertziala Osmo, DJI etxekoa). Horri akoplatu zaio 5 metroko pertika bat eta DJI GO softwarea duen tableta, urrunetik argazkiak egiteko aukera ematen duena. 400 e ta 500 m2 partzeletarako 1.300 argazki baino gehiago egin dira. Ortoargazkiaren azken erresoluzioa 1 eta 5 zentimetro artekoa izan da eta 3Dko eredu batekin, kasu bakoitzean 17 milioi punturekin.

Sarastarriko lur-zatia Lareoko urtegiaren iparrean dago, malda batean, Aralarren. Pagoz beterik dago, baina haginak eta gorosti ugari ere badira. Lurzoruetan kareharrizko arroak daude, lapiaz azaleratu tankerakoak, nahiz eta tarteka badira lurzoru sakon eta ondo garatuak ere.




Martxoa 2019

Newsletter N. 3

Zezen Errekaren kasuan, Pagoetako Parke Natural barruan, lur-zatia pago motzez eta haginez beteta dago. Lurzoruek garapen handiagoa dute, arroka azaleratu barik, nahiz eta argi eskuragarritasun eskasak dakarren belar estaldura txikiagoa.

Altxamendu biek in ezaugarritze xehetua lortu da eta horrek ahalbidetzen du, gainera, etorkizunean aztertutako parametroen arteko alderaketa eta denboran zehar lur-zati biek izan duten eboluzioa baloratu.

Altxamendu fotogrametrikoa Bioma Forestal eta 4Datum Investigación y Desarrollo S.L. enpresek egin dute, Hazi Fundazioaren zuzendaritzapean, proiektuko bazkide gisa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Parke Natural bi horien kudeatzaile gisa.



Modelo de Zezen
Erreka (PN Pagoeta)



Modelo de Sarastarri
(PN Aralar)

Newsletter N. 3

Martxoa 2019

2. 9580* lehentasunezko habitataren hobetze lanak Pagoetako Parke Naturalean (Gipuzkoa) erritmo onean aurrera egiten ari dira

Urtarrila 25, 2019

Hagin populazioak -9580* lehentasunezko habitataren espezie bereizgarria- Pagoetako Parke Naturalean (Gipuzkoa) oso garrantzitsuak dira. Ale kopuru ederra dute eta espazio natural honen kudeaketari esker, euren biziberritze dinamika adierazgarria da.

Hala ere, esku hartzea beharrezkoa den bi egoera aurkitu egin dira.

Batetik, nolabaiteko tamaina duten ale eme batzuk daude hazirik sortzen ari ez direnak. Eta ez dira ari, beste zuhaitz batzuek menperatzen dituztelako. Argi faltak dakar ale eme hauek euren birsortzeko gaitasuna murriztea. Hau bereziki garrantzitsua da Pagoetan, adin handiko haginak gutxi direlako.

Hagin populazioak -9580* lehentasunezko habitataren espezie bereizgarria- Pagoetako Parke Naturalean (Gipuzkoa) oso garrantzitsuak dira. Ale kopuru ederra dute eta espazio natural honen kudeaketari esker, euren biziberritze dinamika adierazgarria da.

Hala ere, esku hartzea beharrezkoa den bi egoera aurkitu egin dira.

Batetik, nolabaiteko tamaina duten ale eme batzuk daude hazirik sortzen ari ez direnak. Eta ez dira ari, beste zuhaitz batzuek menperatzen dituztelako. Argi faltak dakar ale eme hauek euren birsortzeko gaitasuna murriztea. Hau bereziki garrantzitsua da Pagoetan, adin handiko haginak gutxi direlako.

Beste alde batetik, gunee zabal batzuetan bai jasotzen dira haginaren eta haren inguruko espezieen haziak (gorostia, elorri zuria eta erratza). Hala ere, zuhaitz estalkia oso trinkoa da eta horrek euren garapena oztopatzen du. Hau batez ere larria da landaketa batzuetan, izeidietan, Lawson altzifreetan eta Douglas izeidietan, baina baita pagadiak bezalako bertako basoetan ere.

Arazo bi horiei aurre egiteko, Hazi Fundazioak basoko lan batzuk kontratatu ditu haziak sortzen dituzten ale emeen inguruan baso-soilgunea sortzeko asmoarekin. Izan ere, helburua da ale horiek argi nahikoa jasotzea.



1 Irudia Orain dela bi urte soildutako pagadi batean haginaren leheneratze oparoa



2 Irudia Soildutako unada, haginaren eta haren espezie laguntzaileak biziberritzeko. Ebakitzearen hondarrak, batez ere adarrak, zabaltzen dira faunak dispersatu eta biziberritzerako lehen babesa lortzeko.



3 Irudia Hagin eme baten inguruan irekitako soilgunea. Adaburuaren hosto gabetzea ikus daiteke, baita adar hilak ere, argi faltaren seinale. protección para el regenerado.

Era berean, baso-soilguneak sortzen ari dira 9580* lehentasunezko habitataren espezie bereizgarrien haziak jasotzen dituzten guneetan. Horretarako, ebaketak egiten ari dira, baita zuhaitzei eraztunak jarri ere. Azken teknika honek, zuhaitzetan ebaki perimetrala egitean datzana, egur hila zutik (snags) sorraraztea dakar, Pagoetako biodibertsitatea zaintzeko intereseko puntua berau.

Lanak udazken honetan hasi dira eta neguan izango dute jarraipena. Lanak egingo dira Parke Naturala kudeatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpideak jarraituta.

Beste alde batetik, gune zabal batzuetan bai jasotzen dira haginaren eta haren inguruko espezieen haziak (gorostia, elorri zuria eta erratza). Hala ere, zuhaitz estalkia oso trinkoa da eta horrek euren garapena oztopatzen du. Hau batez ere larria da landaketa batzuetan, izeidietan, Lawson altzifreetan eta Douglas izeidietan, baina baita pagadiak bezalako bertako basoetan ere.

Arazo bi horiei aurre egiteko, Hazi Fundazioak basoko lan batzuk kontratatu ditu haziak sortzen dituzten ale emeen inguruan baso-soilguneak sortzeko asmoarekin. Izan ere, helburua da ale horiek argi nahikoa jasotzea.

Era berean, baso-soilguneak sortzen ari dira 9580* lehentasunezko habitataren espezie bereizgarrien haziak jasotzen dituzten guneetan. Horretarako, ebaketak egiten ari dira, baita zuhaitzei eraztunak jarri ere. Azken teknika honek, zuhaitzetan ebaki perimetrala egitean datzana, egur hila zutik (snags) sorraraztea dakar, Pagoetako biodibertsitatea zaintzeko intereseko puntua berau.

Lanak udazken honetan hasi dira eta neguan izango dute jarraipena. Lanak egingo dira Parke Naturala kudeatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpideak jarraituta.



3. Gaztela eta Leongo LIFE BACCATA proiektuaren jarduerak koordinatzeko bilera

Urtarrila 28, 2019

Pasa den asteartean, urtarrilaren 15ean, LIFE BACCATA proiektuan parte hartzen duten kideak (Gaztela eta Leongo Junta eta CESEFOR Fundazioa) Cervera de Pisuergako Parkeko Etxean bildu ziren (Palentzia) eskualdean proiektua aurrera nola doan aztertzeko.

Topaketa honetan, 2019 urterako aurreikusten diren jarduerak planifikatu ziren, A2 ekintzan diseinatutakoak (Kontserbazio-ekintzen planifikazio teknikoa). Ekintza hauetako garrantzitsuenak hauek dira, besteak beste: basoen tratamendua 9580* habitata hobetzeko (C2 ekintza); habitat horren berezko espezieak landatzea (C3 ekintza); belarjaleen eraginen kontrola (C4 ekintza: hesiak ipintzea haginak birsortzea ahalbidetzeko, etab.); naturalak ez diren afekzioen kontrako babesak (C5 ekintza); hiru arboreto sortzea (C6 ekintzaren barruan).

Newsletter N. 3

Martxoa 2019



Bilera "Fuentes Carriones eta Fuente Cobre-Montaña Palentina" KBEn egin zenez, bi hagin-unada bisitatu ahal izan ziren, proiektu honen AI ekintzan karakterizatutakoak. Horietako batean, "hesidun partzela" bat egin da zinegenikoki itxiz eremua. Modu horretan, belarjale handiak sartzea ekidingo da, oreinak kasu, hagin-plantulak kimatu eta horiek haztea ekiditen dutelako. Emaitzak oso positiboak dira: partzela barruan asko birsortu da bai hagina, bai gorostia. Gainera, babesgailu indibidualak ezarri dira isolatuta dauden hagin-plantulak babesteko.

Nabarmena da partzela barruan eta kanpoan birsortu den hagin-kopurua. Hesiaren kanpotik lehenengo urteko hagin-plantulak daude bakarrik; partzela barruan, berriz, urteko plantulak eta hazi diren beste batzuk ikus daitezke, belarjaleen presioa ez dutenez, errazago hazi daitezkeelako.

Unada honetan pago-drosel bat ere ireki da, hagin-basoa osatzen duen behe-droselera argia errazago sartzeko.

Beste unadan, egin behar ziren kontserbazio-jarduerak in situ ebaluatu dira.



1 irudia. Unadan ipini diren hesiak, haginak belarjaleengandik (batik bat, oreina) babestu eta birsortzen laguntzeko.



2 irudia. Unadako hesidun partzela barruan birsortu den hagina.

Newsletter N. 3

Martxoa 2019



4. Kantauriar Mendilerroko "Taxus baccata-ren mediterranear basoen" karakterizazioaren emaitzak Gaztela eta Leonen

Otsaila 1, 2019

Gaztela eta Leongo Kantauriar Mendilerroko "Taxus Baccata-ren mediterranear basoen" 9580* habitataren karakterizazio-lanak helburu-ikuspegi anitzetatik egin dira LIFE BACCATA proiektuaren ekintza ugarietako bat izaki.

Azterketarekin hasteko bilaketa bibliografiko bat egin zen, baita hainbat inkesta ere, espeziea lurraldean nola banatzen zen sailkatzeko. Gero, 13 Kontserbazio Bereziko Eremutan (KBE) dauden 55 hagin-multzo adierazgarriren inbentarioak egin ziren eta ezaugarri dasometrikoak, biofisikoak, baso-dinamikarenak eta ekologikoak aztertu ziren laginak egiteko erabili ohi diren teknika arruntekin, Informazio Geografikorako Sistemekin eta zehaztasun handiko jasotze fotogrametikoak erabiliz.

Jarraian, kontserbazioaren egoerari buruzko diagnostiko bat egin zen, baita aztertutako unada bakoitzean zeuden presio eta mehatxuei buruzkoa ere. Une berean, segimendu jarraiturako partzela batzuk eraiki ziren epe ertain/luzerako. Aipatu partzelak aztertzerakoan, ikertutako multzoen heldutasuna eta naturaltasunari buruzko azterketa bat barne hartu zen. Gaztela eta Leongo hagin-basoen aniztasun biologiko berezi eta mehatxatuaren inguruko inbentarioa osatzeko, hainbat hagin-multzo hautatu ziren liken eta briofitoen komunitateen inbentarioa ere egiteko, baita aldaketa gutxi jasaten dituzten baso-zati hauei lotzen zaizkien



1 argazkia. Trantsektua partzela iraunkorraren ondoan.



Newsletter N. 3

Martxoa 2019

Lortu den informazioari esker, emaitza hauek lortu dira.

- Hagin-baso kontzeptuaren definizio berri baten proposamena, eztabaidatzeko.
- Hagin-basoen kontserbazioa jarraitzeko adierazleen definizioa.
- Basoen kontserbazio aktiborako neurriak ezartzea, inbentarioa egin zaien hagin-multzo gehienek epe ertainera Aldeko Kontserbazio-maila lortzeko, Habitaten Zuzentzauei jarraiki.

Hagina birsortzeko dagoen belarjaleen presioa eta haginaren lore-ingurua, beste zuhaitz-espezie batzuen (adibidez, pagoa) espeziearteko lehiakortasuna, gizakiaren presio zuzena eta klima-aldaketa dira oztopo nagusiak hagin-eremu hauek babesteko, Penintsula Iberikoan eta Europako Batasunean garrantzi gehien duten HIC 9580* baso-motetako bat izaki.

LIFE BACCATA proiektua Europako Batzordearen laguntza-finantzarekin egingo da LIFE deialdiaren esparruan, eta 2016 eta 2020 urteen bitartean gauzatuko da Kantauriar Mendilerroko Natura 2000 Sarea barne hartzen den hamabost lekutan, hots, Galizian, Gaztela eta Leonen eta Euskadin. Proiektuaren koordinazio-lanetan dabil Santiago de Compostelako Unibertsitatea eta kide gisa dihardute Gaztela eta Leongo Juntak, Cesefor-ek, Hazi Fundazioak eta TRAGSA Taldeak.



5. LIFE BACCATA Mintegi Teknikoa

Azaroa 26, 2018

Datorren ostegunean, azaroaren 29an, Lugoko Campuseko IBADER institutuak LIFE BACCATA Mintegi Teknikoa antolatu du Lugoko Campuseko Cactus izeneko eraikinean (Kokapena), erakusteko haginak (*Taxus baccata*) zer nolako funtzio garrantzitsua betetzen duen gure biodibertsitatearen kontserbazioan, eta ondorioz baita hagin-baso deritzen lekuetan ere.

Honekin guztiarekin, jendearen kontzientzia areagotu nahi da gure basoen ondare naturala kontserbatzearekiko, haginari lotutako ondare naturalarekiko eta hagin-basoen ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuekiko.

Ekitaldi honetan, LIFE BACCATA proiektuko kideek parte hartuko dute, hots, egun Kantauriar Mendilerroko Natura 2000 Sarean (Galizia, Gaztela eta Leon, Euskadi) barne hartzen diren 15 hagin-baso guneren kontserbazioan lan egiten dutenek. Gainera, bi elkarte ere izango dira, bertan hagin-basoen eta horien balio natural eta kulturalen inguruan lanean luze dihardutenak.

2018ko azaroaren 29an

BACCATA mintegi teknikoa.

Lekua: Cactus eraikina - Lugoko kanpusa.

PROGRAMA:

16:30 ean: Aurkezpena

16:45 ean: Paulino Martínez: LIFE BACCATA programako laginketa genetikoaren aurre-emaitzak.

17:30 ean: Roberto Rubio: Gaztela eta Leoneko LIFE BACCATA ekintzen aurkezpena.

17:35 ean: Javier Pérez: Euskadiko LIFE BACCATA ekintzen aurkezpena.

17:40 ean: Javier Ferreiro: Galiziako LIFE BACCATA ekintzen aurkezpena.

17:45 ean: Javier Ezquerro: Basoak ugaltzeko material gisa haginekin egin diren aurrerapausoak Gaztela eta Leonen.

18:15 ean: A Morteira elkarte. Hagin-basoak Bierzo-Leongo eskualdean.

19:00etan: Amigos del Tejo y Tejadas elkarte. Haginari eta bere kontserbazioari buruzko ezagutza eta norabide berriak.

19:45 ean: Mahai-ingurua eta eztabaida

Ekitaldirako sarrera librea eta doakoa da, aretoa bete arte (40 pertsona). Ekitaldiko kartela atxikitzen da, informazio guzti hau zuen sareetan barne hartu ahal izan dezazuen.

Informazio gehiago, hemen:

<http://www.ibader.gal/ampliar/85/828/2018-11-29-Seminario-Tecnico-BACCAT...>



Newsletter N. 3

Martxo 2019



Any communication or publication related to the project, made by the beneficiaries jointly or individually in any form and using any means, shall indicate that it reflects only the author's view and that the Agency/Commission is not responsible for any use that may be made of the information it contains.

www.life-baccata.eu

SOCIOS



LIFE15 NAT/ES/000790



ADMINISTRACIONES COLABORADORAS

